

KONTZERTU EKONOMIKOA. Jaurlaritzak «positibotzat» jo du iragarpena, baina komunikazio ofizialaren zain dago

Felix Iriarte | GASTEIZ

Pasa den abenduaren 27tik ez dira negoziazio mahaian jarri Madrilgo gobernua eta Eusko Jaurlaritzak, baina «aurki» bilera teknikoa egingo dute, Cristobal Montoro Espainiako Ogasun ministroak aurreratu duenez. Data ez du oraindik zehaztu.

Jaurlaritzak negoziazioari berriro heltzeko «eguna eta ordua» exijitu zion Montorori, eta «malgutasunez» negoziatzeko prestutasuna azaltzeko, hala-ber. Atzo bertan, Montorok bileraren iragarpena egin aurretik, Josu Jon Imazek eskaera berretsi zion, Jaurlaritzaren ize-
nean, eta magutasuna «bi alde-ek» izan behar dutela nabar-
mendu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saileko iturriek, bestalde, on-
tzat jo dute Montororen iragar-
pena. Hala ere, zuhur azaldu
dira, oraindik Madrilgo Ministe-
riotik komunikazio ofizialik ez
dutelako jaso. Dakitena komu-
nikabideen bitartez dakitela ja-
kinarazi dute, eta komunikazio
ofizialaren zain daudela.

Datorren bilera «teknikoa»
izango dela esan du Montorok:
Kontzertu Ekonomikoa izenpe-
tzeko «atariko» bilera. Madrilgo
governuko ordezkariak pasa
den abenduaren 27ko bileran
zintzilik geratu ziren gaiak lotu
nahi dituzte.

Montorok, haatik, ez du kon-
fiantzarik Jaurlaritzarekin. Bile-
ra iragartzeaz batera adierazi
zuen ez dela Jaurlaritzaren jo-
kabidearekin fio. «Aurreikus
daiteke EAEko ordezkari ba-
tzuk ez direla Kontzertua hitzar-
tzeko asmoz etorriko; aitzitik,

Negoiazio mahaira aurki deituko dio Montorok Eusko Jaurlaritzari

Madrilgo governuak «malgutasunez» jokatzeari espero du Imazek



PACO CAMPOS / EFE
Cristobal Montoro, atzo, Espainiako Senatuan, erkidego guztiak biltzen dituen batzordean.

jarrerak gogortzera etorriko
dira. Europako Batasunean or-
dezkaritza zuzena nahi dute,
hori da akordioa ez egiteko mo-
tibo bakarra, baina hori estal-
tzera etorriko dira», esan zuen
Espainiako Ogasun ministroak.

Europar ordezkariak zuzena

izateko aldarrikapena bazter-
tzea espero du Montorok, akor-
dioa posible egiteko: «Oztopo
hori kendu behar dute, EAEko
herritarrak eta enpresak Kon-
tzertuaren abantailaz baliu dai-
tezen».

Europar ordezkariak izateko

helburua Jaurlaritzaren zerren-
dan dagoela pentsatzen du
Ogasun Ministerioak. Idoia Ze-
narruzabeitia Ogasun sailbu-
ruak gutun bat helarazi zion
Madrili, negoziazioak eskatuz
eta Jaurlaritzaren jokabidea ze-
haztuz. Montorok gutunaren

berri eman zuen, kexu, Jaurlari-
tzak antza denez amore eman
ez duelako. Montorok espero
zuen Europako kontu hori
behin betiko baztertzea Jaurla-
ritzak.

**Bi aldean arteko negoziazioa
nahi du Jaurlaritzak**

Imaz ere kexu azaldu zen atzo,
Gobernu Kontseiluaren ondo-
rengo agerraldian. Kexu, Ma-
drilek Zenarruzabeitia helarazi
zion gutuna «filtratu» duelako
Jaurlaritzaren jokabidea deska-
lifikatzeko. «Zerbait filtratu nahi
badu, gutun osoa filtratzeko es-
katuko nioke, ez zati bat. Hala
egiteak helburu bakar bat du:
Jaurlaritzaren jokabidea alda-
tzea. Osoa irakurrita, ikusiko li-
tzateke Jaurlaritzak bere prin-
tzipioei eusten diela, baina mal-
gutasunez jokatu nahi duela».

Madrilgo gobernuarekin ika-
mikarik ez duela nahi eta akor-
dioa egitea euskal gizartearen-
tzat «ezinbestekoa» dela esan
zuen Jaurlaritzako bozeramail-
leak. Halaber, Kontzertuarekin
lotutako gaiez jarduteko bi ad-
ministrazioen arteko negoa-
zioa aldarrikatu zuen.

Zenarruzabeitia, izan ere,
uko egin zion atzo arratsaldean
Senatura joateari Montororekin
batera Kontzertuaz jarduteko.
Senatuan, erkidego guztietako
ordezkariak biltzen dituen ba-
tzordean eztabaidatu nahi zuen
Montorok, baina Imazek gogo-
ratu zion Kontzertua biren kon-
tua dela, ez erkidego guztiena.
«Senatuan egin nahi duten ezta-
baidak ez du inolako zentzurik.
Senatua errespetatzen dugu,
baina Kontzertua biren arteko
ituna da», esan zuen.

ASKATASUNA ETA SEGI-REN ILEGALIZAZIOA. Legebiltzarreko Mahaiaren erabakiari helegitea aurkeztuko dio Batasunak aste honetan

Eusko Legebiltzarreko mahaiak atzera bota du Garzonen autoez jarduteko proposamena

F.I. | GASTEIZ

Gasteizko Legebiltzarreko Ma-
haiak, aho batez, ez du onartu
tramitera Batasunak Segi eta
Askatasunaren ilegalizazioaz
jarduteko aurkeztu zuen legez
besteko proposamena. Atzo
egin zuten bilera Mahaiak, eta
EAJ, EA, IU, PP eta PSEren bo-
toekin ebatzi zuen Batasuna-
ren eskaera aintzat ez hartzea,
epaileen erabakiez aritzea ez
dagokiolako Legebiltzarrari.

«Mahaiak ez du onartu Bata-
sunaren proposamena trami-
tera onartzea, ekimenak bote-
re bereizketaren printzipioa
urratzen duelako. Halaber, ez

dago eztabaidatzerik epaileen
erabakiei buruz». Hala dio Ma-
haiaren ebazpenak, Segi eta
Askatasunaren ilegalizazioari
buruzko eztabaida eragozteko.

Batasunak premiaz eztabai-
datzeko eskaera egin zuen. Es-
katzen zuen da Legebiltzarrak
Jaurlaritzari eska ziezaiola aint-
tzat ez hartzeko Baltasar Gar-
zonen ebazpenak. Halaber,
nahi zuen Legebiltzarrak de-
klaratzeko Garzonen autoak
«oinarritzko eskubide eta aska-
tasunen aurkakoak» direla.

Mahaiaren erabakiaren aur-
ka helegitea iragarri du Bata-
sunak. Aste honetan aurkeztuko
dute Legebiltzarreko erroldan

eta litekeena da gaia bozera-
maileen batzordean eztabaida-
tzea, datorren astelehenean.

Jone Goirizelaia Batasuneko
legebiltzarkideak alderdien jo-
kabidea kritikatu du. Eztabaida
«Batasuna gabe eta isilean»
egin dutela salatu du. «Guk ez-
tabaida proposatu genuen al-
derdien jarrerak azaltzeko.
Egin dute, eta gure aurka gai-
nera. Jaurlaritzako alderdiek,
gainera, ez dute arazorik izan
bat egiteko PP eta PSEekin».

Eztabaida ukatuz «Garzone-
kin eta Auzitegi Nazionalarekin
bat» egin dute alderdiek, Goiri-
zelaia esan duenez. Halaber,
EAJren jokabidea salatu du:
«EAJk berak ateratako oharra
onartzea proposatzen genuen
lehen puntuan, baina EAJk ez
du onartu. Garbi geratu da aur-
pegia garbitu nahi zuela autoak
onartezinak zirelako».

Segik eta LABek bat egin dute Batasunak larunbaterako deitu duen manifestazioarekin

Erredakzioa | BAIONA-DONOSTIA

Segi gazte erakundeak eta LAB
sindikatuak bat egin dute, Ba-
tasunak Donostian larunbate-
rako deitua duen manifestazio
nazionalarekin. Segik Frantzia-
ko Gobernuaren «hipokresia»
eta «haren menpe lan egiten
duten komunikabideen isilta-
suna» salatu ditu, «estatu es-
painol faxistak adierazpen as-
katasuna urratzen duelarik»
erakutsi duten jarreragatik.

Euskal Herria «salbuespen
egoeran» bizi dela iritzita, hain-
bat protesta mobilizazio iraga-
rri ditu Segik egunotarako.
Bihar, asteroko kontzentrazio-

ak egingo dituzte 19:00etan,
Baionan, Donibane Lohizunen
eta Donibane Garazin. Larun-
batean, 17:30ean Donostiako
manifestaziora joateko deia
egin du. Horren kariatara, Ez-
peletan ospatzekoa duten Gaz-
te Egunaren egitaraua aldatu
egin dute. Lehenetsuna mani-
festazioari emanik, Gazte Egu-
nak «indarra» arratsean hartu-
ko duela adierazi dute.

LABek ere Donostiako ma-
nifestazioan parte hartzera dei-
tu du. Askatasuna eta Segiren
aurkako «erabaki sasi-juridi-
koa» salatu, eta horren helbu-
rua «mugimendu abertzalea
zanpatzea» dela adierazi du.